



errigora

errigora.eus

Eutsi gureari!

Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

otsailak 25 - martxoak 13



eko



eko



eko



eko

Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, arroza, pasta, kontserbak, lekaleak eta ardo loteak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.



Eutsi gureari!

Eusteko, zeri eta gureari. Baina ez da dei bat lortutakoari, galtzeko beldurrez, atxikita gelditzeko deia da. Bada dei bat, baina egindako bideari begiratu, oinak gaurko lurrean sentitu eta aurrerako pausuak emateko deia.

Zailtasunak ez dira falta. Olioaren prezioaren eromenari begiratzea baino ez dugu, merkatu logikak zenbateraino agintzen duen jabetzeko, eta nekazal ekoizpenaren errealitatea zein gordina den jabetzeko hiru zertzelada aski dira:

- Ager eremuko esplotazioen % 36 desagertu dira azken 12 urtetan.
- Nafarroan, Nekazarien % 7 baino ez ditu 40 urte baino gutxiago.
- Euskal Herrian 4000 tona garbantzua kontsumitzen baditugu urtero, soilik 100 tona eskas ekoizi. Errigoraren komunitatea bera ere (ekoizleongandik hasi eta kontsumitzaileonganaino) testuinguru horrek harrapatuta gaude eta kontraesanak daramatzagu kolkoan, jakina. Bai ekoizleok salmentak egiterakoan eta bai kontsumitzaileok erosketak gauzatzekoan.

Eta metatu ditugun **ahalak?** Udaberriro elkartzen den 10.000tik gora kontsumitzaileen giharra (Eskutik Eskura kanpaina). Euskalgintza eta ekoizpen mundua elkarlotzea (ekoizle guztiek euskara plan bat dute abian 2023tik), bertako ekonomia sustatzeko gaitasuna (kontserberatako bat gainbeheratik egitasmo berri bat izatera pasa da), ekoizpen agroekologikoa bultzatzeko egindako apustuaren emaitzak (pikillo piper ekologiko landatze berriak sortu dira); boluntario, ekoizle, euskaltzale, kontsumitzaile, batzordekide zein profesional bezalako komunitatearen aberastasuna... Ekoizle familiako ardogileen argazkia (Mendiko, Lezaun, Azpea eta Aristu upategiak) Errigoraren gaitasunen ikur izan daiteke: erreleboa jaso duten gazteak, lurrari emanak, ekoizpen eredu baliotsuetara engaiatuak, herriari lotuak, etorkizunari atxikiak... Udaberriko kanpainan lehenengoz leku egin dute ardogile horiek.

Ahalez gain, **ametsak** gureganatu ditugu, duela 10 urte urrun ikusten genituenak:

- Lekaleak sustatzeko emandako pausuak: Hazialdeko nekazal kooperatibaren sorrera ezagutu dugu urteotan.
- Kanpainek bere horretan merkaturatze bide bezala suposatzen dutena: Nafarroako oliba-olio ekoizpenaren %5,7 banatzera heldu gara.
- Euskal herriko 20 jantoki kolektibotan olio, arroz edo dilistak dira menuetan iaztik ekoizle eta jantokien ez-ohiko elkarlan batean.

Are, **amets berriak** ere ereinten ari gara. Nekazariarentzat lan baldintza duinagoak eskuratzea bezalakoak; edo merkatu logikatik ateratzeko ekoizle eta kontsumitzaileen arteko epe-erdiko akordioak bezalako ametsak edota kontsumo-elkarte eta eragileekin aliantza-sareak osatzea bezalakoak. Eta zergatik ez ekoizpen- eta elaborazio-bitarteko kolektiboak eskuratu? Lurra erostea, lur komunaletan hitzarmenak lortzea, ontziratze azpiegiturak gureganatzea, olio errota komunitarioak sustatzea...

Aurtengo udaberriko kanpainan gureari eutsi nahi genioke beraz. Zailtasunez jakitun, gure ahaletatik ametsetarako bidea marraztu ez ezik, bidea egiten jarraitu. "Eutsi gureari!" diogunean horixe adierazi nahi genuke, eta noski milaka despentsa betetzen segi!

BERRIA



Aspea
Mendiko
Aristu
Lezaun

Zura x2
Oraina x2
Mendarte x1
0,0 sulfito x1

eko Ardo bereziak
Ardo beltza
750ML-KO 6 BOTILA
29€ 4.83€/u

BERRIA



Lezaun
Aristu
Mendiko
Aspea

Lezaun
Kriantza x2
Kale Katu x2
Oreka x1
Zura x1

eko Ardo gorenak
Ardo beltza
750ML-KO 6 BOTILA
44€ 7.33€/u



El Escolar
Iturri
La Churta

eko Zainzuriak
Zainzuri zuri lodiak (6/12)
370ML-KO 12 ONTZI
47€ 3.91€/u

Zainzuriak

Zainzuri zuri lodiak (8/12)

425ML-KO
12 ONTZI

46€ 3.83€/u



El Agricultor
El Escolar
Iturri



Iturri
El Escolar
Ebrón

eko Piperrak
Pikilo piper osoak (9/12)
250ML-KO 12 ONTZI
40€ 3.33€/u



El Agricultor
El Escolar

Piperrak
Pikilo piper osoak (18/22)
425ML-KO 12 ONTZI
40€ 3.33€/u



Ebrón

eko Orburuak
Orburu bihotzak
720ML-KO 12 ONTZI
84€ 7.00€/u



Ebrón

Orburuak
Orburu bihotzak
720ML-KO 12 ONTZI
71€ 5.91€/u



La Churta

eko Kardua
Kardu zuritua
720ML-KO 12 ONTZI
27€ 2.25€/u



Ebrón

Kardua
Kardu zuritua
720ML-KO 12 ONTZI
25€ 2.08€/u



Ebrón

eko Menestra
Barazki-menestra
720ML-KO 12 ONTZI
79€ 6.58€/u



Bardea

eko Arbendolak
Azalarekin eta txigortuak
120GR-KO 12 PAKETE
30€ 2.5€/u



Ebrón

eko Barazkiak
Borraja, zerba-penkak
eta lekak
720ML-KO 12 ONTZI
39€ 3.25€/u



Ebrón

Barazkiak
Borraja, zerba-penkak
eta lekak
720ML-KO 12 ONTZI
32€ 2.66€/u



La Churta
Enara

eko Tomatea
Tomate frijitua
370ML-KO 12 ONTZI
22€ 1.83€/u



Iturri

Tomatea
Tomate frijitua
370ML-KO 12 ONTZI
16€ 1.33€/u



Hazialdeko

eko Lekaleak
Dilista eta txixirio lehorrak
500GR-KO 12 PAKETE
35€ 2.91€/u



El Escolar

Potxak
Potxa zuri eta berdeak
720ML-KO 12 ONTZI
50€ 4.16€/u



Iturri

eko Babarrunak
Babarrun gorriak
720ML-KO 12 ONTZI
40€ 3.33€/u



Iturri

Babarrunak
Babarrun gorriak
720ML-KO 12 ONTZI
32€ 2.66€/u



La Churta

eko Txixirioak
Txixirioak
720ML-KO 12 ONTZI
27€ 2.25€/u



Pasta Martinelli

eko Pasta
Makarroi txuria, fussili
albahaca eta pikilo fussilia
400GR-KO 12 PAKETE
38€ 3.16€/u



El Alcaraván

eko Arroza
KILOKO 6 PAKETE
Erdiluze integrala
24€ 4.00€/u



El Alcaraván

eko Arroza
KILOKO 6 PAKETE
Erdiluze txuria
26€ 4.33€/u



Bardea
La Casa
del Aceite

eko Arbekina
Oliba-olio birjina estra ekologikoa
5 LITROKO ONTZIA
56€ 11.20€/l



Biosasun
Enara

eko Arroitz
Oliba-olio birjina estra ekologikoa
5 LITROKO ONTZIA
54€ 10.80€/l



La Casa del
Aceite

Pikual
Oliba-olio birjina estra
5 LITROKO ONTZIA
47€ 9.40€/l



Castillo de
Ablitas

Enpeltre
Oliba-olio birjina estra
5 LITROKO ONTZIA
47€ 9.40€/l



Castillo de
Ablitas
La Casa
del Aceite

Arbekina
Oliba-olio birjina estra
5 LITROKO ONTZIA
47€ 9.40€/l

erriçora

Eskaintza

Azken urteetako eskema errepikatuko dugu aurtengoan ere: urte guztirako eskaerak egitea da planteatzen duguna eta, hortaz, oliba-olio birjina estra bidoi handietan eskainiko dugu eta gainontzeko produktuak 12 unitateko sortetan, arroza izan ezik 6ko lotetan banatuko dena.

Berrikuntzak

- Ardo bereziak: Lote honetan Errigoran parte hartzen duten upategietako ardo bitxien aukeraketa bat aurkituko duzue: sulfitorik gabeko ardoak, ardo onduak izan gabe frutaren freskotasuna eta egur-ukitua mantentzen duten ardo erdionduak, beratze karbonikoko ardoak... Azken batean, ekonomikoa izan arren berezia den ardo sorta bat.
- Ardo gorenak: Lote honetan ardoen lan-ildo klasikoan murgiltzen gara. Eta bertan, ardo onduak aurki ditzakegu, dedikazio handiagoa behar duten elaborazio luzeako ardoak.
- Babarrun gorriak: Aurtengo eskaintzan ere babarrun gorriak aurkituko ditugu, ekologikoak eta konbentzionalak.

Kanpainaren funtzionamendua

Eskaerak epea: martxoaren 13a baino lehen egin behar dira.

Eskaera egiteko bideak: Aurten gure webgunea izango da eskaerak jasotzeko bide nagusia: errigora.eus da. Hala ere, telefono bidez ere egin ahal izango dira eskaerak. Hegoaldetik deitzeko +34 848 87 12 23; Ipar Euskal Herritik, oster, +33 532 09 35 45.

Eskaerak jasotzeko: Apirilaren amaieran edo maiatzaren hasieran jasoko dituzte eskatzaileek produktuak bakoitzaren herrian, eskaera egitean aukeratutako gunean, zehaztutako egutegi eta ordutegian.

Ordaintzeko: Online eginez gero, bi zatitan ordaintzeko aukera izango da. Bestela, dena batera ordain daiteke, eskudirutan, produktuak jasotzerakoan.